

# IPUINA

## ISPILU HARROGARRIA

Harri eta Nora bi lagun dira. Nora lotsagabe samarra da, eta Harri, berriz, lotsati-lotsatia. Baina elkarrekin oso ongi moldatzen dira.

Egun batean, Norak Harriri egun batzuk lehenago aurkitu zuen toki berezi bat erakutsiko ziola esan zion.

Oinez ibili behar izan zuten pixka bat, eta nahikoa ezkutuan zegoen harri-tarte batetik pasatu.

- Hortxe da! -esan zuen Norak, haitzulo baten sarrera seinalatuz.

Bai, haitzulo bat zen Noraren toki sekretua.

Barrura sartu ziren eta Norak aurrera egin zuen. Harri pixka bat beldurtu zen eta atarian geratu zen, baina Norak dei egin zion:

- Harri! Etorri! - eta haitzuloak oihartzun egin zuen: -rri, -rri, -rri... - Ispilu bat topatu dut haitzulo barruan!

- Nor dago zurekin? -galdetu zion Harrik.

- Inor! -or, or, or esan zuen oihartzunak.- Ni bakarrik nago! Oihartzuna da hori! – eta berriz ere oihartzunarekin erantzun zuen haitzuloak: -ri, -ri, -ri...

Harri ispilu ondora heldu zenean, Nora keinuka hasi zen: eskuekin bi masailei tiraka, mihia atera eta sudurra ukitzen saiatzen, hatzekin belarriak mugitzen... Oso barregarria zen!

Harri lotsatiak begiratu egiten zion, baina ez zen ausartzen ispilu aurrean jartzen.

- Orain zu! -esan zion Norak.

- Lotsa ematen dit... -erantzun zion Harrik.

- Zergatik? Zure burua ikusteak lotsatzen al zaitu? Niri oso dibertigarria iruditu zait. Zatoz, biok jarriko gara ispilu aurrean!

Lagunarekin batera ispilu aurrean jartzeak lotsa gutxiago ematen zionez, jarri zen ispilu aurrean Harri ere.

- Harri, irri! –esan zuen Norak, eta haitzuloak oihartzun egin zuen berriz: -rri,

rri, rri...

- Harri, esan zerbait! Ez lotsatu!!

- Nora, gora! -erantzun zuen Harrik, lotsak gainetik kenduta, eta baita

haitzuloak ere erantzun! -ra, ra, ra...

- Inurri! Bihurri! Etorri! – Norak eta -rri, -rri, -rri haitzuloak.

- Badirudi ahokorapiloak asmatzen ari garela! -otu zitzaion Harriri.

Nora berriz hasi zen masailei tiraka, mihia atera eta sudurra ukitzen saiatzen, hatzekin belarriak mugitzen eta Harri ere, pixkanaka lotsak galdu eta ispilu aurrean keinuka eta irrintzika hasi zen.

Bi lagunek tripan min izan arte egin zuten barre eta irri.

- Dagoeneko ez zaude lotsatuta. Ez al zaude zure buruaz harro lotsa gainditu duzulako? – galdetu zion lagun Norak Harri lotsatiari.

Eta Harrik pentsatu zuen baietz; harro zegoela ispiluan ikusten zuen ume hartaz.

Haitzulo sarreratik heltzen zen argia apaltzen hasi zenez, jakin zuten bazela garaia etxera itzultzeko.

Saltoka eta korrika, bakoitza bere etxera abiatu zen, afaltzeko ordua izango baitzen laster.

***Eta harro herri... egin orro eta korri!***